


## LANKIDETZA

### Zer da lankidetzaz?

Lankidetzaz ikasteko beste metodo bat da. Normalean, bakarka ikastera ohituta gaude; baina taldean ere ikas daiteke. **Lankidetzaz hori da: taldean ikasteko metodoa.**

Beheko grafikoan ikusten dira ikasteko era batzuk: bakarka, eztabaida-taldeak sortuz eta lankidetzaz.



### Zein ahalmen berri eskatzen dizu gure gizarteak?

Hemendik urte batzutura langilea izango zara eta toki ezberdinetan egin beharko duzu lan hori: bulegotan, laborategietan, unibertsitatean...


Lan hori egiten ari zarenean batzutan bakarka egingo duzu baino bestetan taldean lanean aritzea egokituko zaizu (hau da, zure lana beste kideen lanekin koordinatu beharko da; batzutan kide horiek ezezagunak izango dira, beste herrialdetan kokaturik egongo baitira edota lana online formatuan bete behar delako) eta horretarako ahalmen jakin batzuk behar dira: besteekin egoki erlazionatzen (**giza-harremanak**), lan horretan sartu beharreko informazioa eta iritziak **negoziatzen**, ideia eta ekarpen ezberdinak lotzen eta **sintetizatzen**...

### Lankidetzazaren bitartez lantzen diren ahalmenak

Lankidetzaz ikasten jakiteak garrantzia du; bakarka soilik ikasten duenak zenbait ahalmen landu gabe izango ditu, taldean ikasiz lantzen direnak:

- Iturrietan agertzen den informazioaren artean (internet datu-base erraldoia da eta bertan informazio fidagarria eta ez hain fidagarria agertzen da) adierazgarria den **informazioa aukeratzen** eta interesgarriena ez dena baztertzen jakin
- Informazio horri forma eman behar zaio eta paperean edo formatu elektronikotan sartu. Taldeka lana egiten denean, sartu behar den informazioa (zer informazioa eta nola) **negoziatu** behar izaten da, **norberaren ikuspuntua justifikatuz** eta **besteen ikuspuntuak errespetatuz** eta **baloratuz**. Taldeak ondo funtzionatzen badu, taldeko lana bakarkakoa baino osatuagoa eta landuagoa izango da.

## Eskema



## "ZIENTZIA LANKIDETZAN" PROIEKTUA

### Proiektuaren definizioa

"ZIENTZIA LANKIDETZAN" proiektu txiki bat da, 8-10 klasetan burutuko dena.

Proiektu honen helburua, lankidetzan aritzeko aukera ematea da: proiektu honetan lankidetzan aritzearen ideia txiki bat emango dizu. Hurrengo urteetan seguraski izango dituzu aukera gehiago lankidetzan hobetzeko.

Talde bakoitzak 4 ikasle osatuko ditu: 2 Zarauzko Institutukoak eta beste 2 Zumaiako Institutukoak. Honen arrazoiak:

- Zentru bereko bi ikasle izateak ezaguna den beste batekin aritzeko aukera ematen du. Kasu honetan kolaborazioa bestearen ondoan fisikoki egonez egingo da eta honen ematen du aukera harremanak eta iritzien kontrasteak uneoro izateko.
- Beste zentruko ikasleak egoteak ezezagunekin lana egitea nolakoa den ikustea da. Kasu honetan harremanak eta iritzien kontrasteak oso puntualak izango dira.

Lana bi fasetan egingo da:

- lehen fasean zentru bereko ikasleak arituko dira eta horien artean negoziatu beharko dute nolako informazioa hautatu (**INFORMAZIOA NEGOZIATU** eta **ADOSTU**)
- bigarren fasean beste zentruko ikasleekin aritu beharko da, zenbait informazio kontrastatzeko (**INFORMAZIOA KONTRASTATU**, **BALORATU** eta neurri batean **INTEGRATU**)

Hori guztia egin ondoren, talde bakoitzak bi produktu aurkeztuko ditu: taldeko zarauzkoek produktu bat eta zumaiakoek beste bat.

### Proiektu horren helburuak

Proiektu honen bidez zera lortu nahi da:

- **Ikasleei lankidetzan aritzeko aukera eman eta lankidetzaren ezaugarriak landu**
  - informazioa negoziatu eta adostu
  - besteen informazioa baloratu eta interesgarria bada integratu
  - lankidetzari buruzko iritzi pertsonala eraiki eta adierazi
- **Energiari buruzko txostena egin formatu elektronikoak (PowerPoint)**

## Egin beharreko lana

Energiari buruzko txosten bat egin behar da. Talde bakoitzari bere gaia esleituko zaio. Gaiak hauek dira:


- Energia hidroelektrikoa
- Energia eolikoa
- Energia geotermikoa
- Eguzki-energia

Lana PowerPoint formatuan egingo da.

Energia-mota bakoitza garatzean, hiru ikuspuntu nagusi azpimarratuko dira:

- **TEKNOLOGIAREN IKUSPUNTUA:** energia-mota horren onurak gizarteak aprobetxamendua atera dezan zer nolako zentrala erabiltzen den; bere eskema nagusia eta zentralaren elementuak (turbinak, sorgailua...). Elementu bakoitzak eta eskema orokorrak bere diapositiba izango dute.

Hona hemen eskema nagusiaren adibide bat:



- **ZIENTZIAREN IKUSPUNTUA:** Energiaren ekoizpen horretan parte hartzen duten kontzeptu zientifiko nagusienak: energia zinetikoa, energia potentziala, uraren zikloa... Bakoitzak bere diapositiba izango du.
- **GIZARTE eta INGURUMENAREN IKUSPUNTUA:** Horrelako zentrala eraikitzeak dituen alderdi positiboak eta negatiboak. Gutxi gora behera bi diapositibetan landu daiteke.

## Lanaren faseak eta denboralizazioa

Faseak	Egunak	Eginkizunak	
Sarrera  Ikastetxe barneko lana	1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gidoia irakurri eta eztabaidatu</li> <li>PowerPoint fitxategiaren hasierako egitura egin</li> <li>Informazioa bilatu (INTERNET)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argazkiak</li> <li>Googleren tresnak edo bloga erabili ohar interesgarriak idazteko: zein baliabide iruditzen zaigun nabarmena...</li> </ul>
	2	<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazioa bilatu</li> </ul>	
	3	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldean informazio interesgarriena negoziatu</li> </ul>	
	4		
	5	<ul style="list-style-type: none"> <li>PowerPoint fitxategian informazioa (testua eta irudiak) sartzen joan</li> </ul>	
	6		
Taldea osoa (beste ikastetxekoekin)	7	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldeko beste ikastetxetik bidalitako informazioa aztertu, baloratu eta bertako lanean integratu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Googleren tresnak edo bloga erabili besteen informazioa baloratzeko</li> </ul>
	8		
	9	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beste ikastetxekoentzat proposamenak egin beraien lana hobetzeko</li> </ul>	
Azken produktua	10	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanaren amaiera                             <ul style="list-style-type: none"> <li>PowerPoint fitxategiaren amaiera</li> <li>Lankidetzari buruzko balorazio-galdeketa betetzea</li> </ul> </li> </ul>	

Denboralizazio hori estimazioa da: zertxobait motzagoa edo luzeagoa suerta daiteke.

## Ebaluaketa

Ebaluaketa bakarkakoa izango da. Honelakoa izango da balorazioa:

Atala	Puntuak
<b>Tresna informatikoen erabilera egokia</b>	<b>2,50</b>
<b>INTERNET eta GOOGLE</b> Internet-en bidez informazio (testua eta grafikoa) ona bilatzen du	1,00
<b>POWERPOINT</b> PowerPoint ondo erabiltzen du, informazioa era erakargarriak eta eraginkorren aurkezteko	0,50
<b>BLOG</b> Bloga erabiltzen du, besteekin informazio interesgarria konpartitzeko	0,50
<b>ORDENADOREA</b> Ordenadorea era egokian erabiltzen du (piztu, itzali, tresna ondo tratatu...)	0,50
<b>Lankidetzak</b>	<b>4,00</b>
Besteen lana aztertu eta baloratu	1,00
Besteen ekaspenak norberaren lanean integratu ala ez, zergatiak adieraziz	2,00
Ekaspenak egin besteen lanak hobetzeko	1,00
<b>Azken produktuaren balorazioa</b>	<b>1,50</b>
Eginiko PowerPoint fitxategiaren balorazioa	1,00
Lankidetzari buruzko balorazio-galdeketa	0,50
<b>Jarrera orokorra</b>	<b>2,00</b>
Proiektu honetan gelako jarrera orokorra	2,00